


Makatza ▶

Pyrus cordata
Soilguneetan eta baso bazterretan agertu ohi da, eta nahiago ditu silizedun lurrak. *Pyrus communis* -ek baino pedunkulu finagoa du eta globo itxurako fruituak garatzen ditu.
ES *Peral silvestre* EN *Plymouth Pear*

UOMAMEUAIUAA



Gereziondoa


Prunus avium

loraketak udaberriaren berri ematen du

Lur heze eta sakonetan hazten da. Loraketa goiztiar deigarria du, eta enbor ildaskatu oso bereizgarria. Fruitu basatiak latz eta garratzak dira.

ES *Cerezo* EN *Wild Cherry*

BE ★★ UOMAMEUAIUAA



Sagarmina ▶

Malus sylvestris
Basoetan sakabanatuta agertzen da eta fruitu txiki eta garratzak ditu. *Malus domestica* -ren aitzindaria da, eta hosto helduen azpiko alde ilegabea delako bereizten da.

ES *Manzano silvestre* EN *Wild Crab*

UOMAMEUAIUAA

★★ BE (B)



Otsagereziondoa *Prunus padus*

Baso hezeetan agertzen den espezia da. Gure lurraldean oso populazio basati gutxi ezagutzen dira. Hala ere, batzuetan lorategietan topatuko dugu. Bere fruituen kontsumoak goragalea eragin dezake. Euskadi eta Nafarroan babestuta dago.

ES *Cerezo de aliso* EN *Bird Cherry*

EN *Bird Cherry*

(B) BE ★★ UOMAMEUAIUAA



Hurritza ▶

Corylus avellana
Erreka ertzetan oso ohikoa da. Enbor adarkatua duen zuhaitza da. Oso preziatua da bere fruituengatik, baita makilak egiteko ere. Udazkenean basoko animalientzako elikagai iturri garrantzitsua dira.

ES *Avellano*

EN *Common Hazel*

UOMAMEUAIUAA

★★★★★ BE



Oilarana ▶

Prunus mahaleb
Harkaitz, arroila eta labarretan hazten da. Egurrak usain goxoa du eta European pipak edo kutxak egiteko erabilia izan da. Maiz lorategietan erabiltzen da bere loraketa oparoarengatik.

ES *Cerezo de Santa Lucía* EN *Mahaleb Cherry*

UOMAMEUAIUAA

★★★★ BE (B)




Portugal erramua

Prunus lusitanica

Bereziki landare apaingarri modura erabili izan da. Gaur egun, oso populazio basati gutxi ezagutzen dira gure lurraldean. Fruituak urtarrean heltzen dira eta neguko elikagai iturri garrantzitsua dira hegaztientzako. Euskal Herrian babestuta dago.

ES *Loro* EN *Portugal Laurel*

(B) BE ★ UOMAMEUAIUAA



LANDA GIDA TXIKIA

Toni Llobet · Yoana García eta Ana Irene García

Euskal Herrian ezagutu beharreko

101 zuhaitz



Euskal Herriko zuhaitzak

Zuhaitzak paisaia eta bizitza dira. Basoak osatzen dituzte, baita heskaiak, ibaiertzak, inguru harritsuak, larreak eta bestelako bazterrak edertzen eta babesten dituzte ere. Haien historia naturala kontatzen digute, askotan, baita giza historia ere: lur-mota, hezetasuna, klima, iraganeko erabilerak, fauna...

Gida honetako 101 zuhaitzek, landa ingurunean eta ingurune naturalean topatzen ditugun espezie autoktono eta exotiko gehienak biltzen dituzte. Laminetan, gertuko espezieak, berdintsuak direnak edo habitat berekoak bildu dira, gutxi gorabeherako eskalan marraztuak. Hostoek espezie bakoitza identifikatzen laguntzen dute (alderatu hainbat espezie diagnostikatu aurretik), baita ilustratutako beste atalek ere: loreak, fruituak, arantzak... Identifikatzeko, osatu ukimenarekin eta usaimenarekin ikusten duzuna. Zuhaitzaren itxura orokorra oso aldakorra denez, itxura bereizgarrienak baino ez dira marraztu. Ugaritasuna, Euskal Herrian agertzen diren eremuei dagokio. Gainera, eskualde Eurosiberiarra eta Mediterranearra bereiztu dira. Beste informazio asko ikonoen bidez adierazi da.

Urteko edozein garaitan, baso ezkutuen esploratzen gaudela edo hirigune ondoko mugak miazten, zuhaitzek liluratuko gaituzte!



Testu eta espezie selekzioa: Botanika Saila (Aranzadi Zientzia Elkarte) Ilustrazioak: Toni Llobet Diseinu grafikoak: Lluç Julià eta Toni Llobet Maketazioa: Toni Llobet eta Clara Cortadelles Itzulpena: Yoana García, Ana Irene García eta Mikel Etxeberria Lege-gordailua: DL T 298-2024

HOSTO MOTA

Iraunkorra Martzesente Erorkorra

FENOLOGIA Loraketa garaia urtean zehar

Loreekin Lorerik gabe

UGARITASUNA Bere habitatean

★★★★ Oso arrunta ★★★ Arrunta ★★ Eskasa ★ Arraroa

★ Eskualde Eurosiberiarra

★ Eskualde Mediterranearra

ESPEZIE MOTAK

BE Bertakoa **AE** Aloktono ez inbaditzailea

AI Aloktono inbaditzailea **AR** Arkeofitoa

EGOERA

(B) Espezie babestua

HABITATA

Dunak eta hareatza hezeak

Ibaiertzeko inguruneak

Koniferoen basoak

Hostoerorkorren basoak

Sastrakadiak

Hostoiraunkorren basoak

Laborantza eta landaketak

Ingurune urbanizatuak

Ingurune harritsuak

Ingurune gaziak

ESTAI BIOKLIMATIKOAK

Barnealdeko eta kostaldeko lautadak, estai muinotarra Estai menditarra Goi mendia

ESKALA

Espezie guztiak eskala berean agertzen dira dagokien orrian, zirkulu baten barruan agertzen direnean edo zuhaitz osoen irudietan izan ezik.

Argitaratzailea:

Lectio Ediciones

Kolaboratzailea(k):

aranzadi
zientzia elkarte

Toni Llobet

Thema: WNP / 1DSE-ES-Q / 1DSE-ES-R



PINUAK ETA IZEIA

Alepo pinua ▶

Pinus halepensis

Baso xerofiloak sortzen ditu kareharri edo igeltsu lurretan. Mediterraneoan luraren errosioa ekiditeko landatua izan da. Suteen dinamikari moldatutako espeziea da.

ES *Pino carrasco*
EN *Aleppo Pine*

★★ **BE (B)**

Larizio pinua ▶

Pinus nigra

Era naturalean Euskal Herriraino iristen ez diren hainbat subespezietan bereiztuta dago.

ES *Pino negral*
EN *Black Pine*

★★★★★ **AE**

Lergorria *Pinus sylvestris* ▶

Baso espontaneoak sortzen ditu. Soiluneetan eta bestelako basoetan banaka ager daiteke. Bere azal gorria oso deigarria da. Batez ere Pirinioetan aurkitzen da.

ES *Pino albar* EN *Scots Pine*

★★★★★★ **BE**

Mendi pinua ▶

Pinus uncinata

Baso argitsuak sortzen ditu eremu menditsuetan. Gure lurraldean Pirinioetan baino ez dugu aurkitzen, beste zuhaitz espezieak bizi ezin diren eremuetan.

ES *Pino negro*
EN *Mountain Pine*

★★ **BE**

Izei zuria *Abies alba* ▶

Tamaina handiko zuhaitzak dira. Gune itzaltsuetan hazten dira. Izeidiak osatzeaz gain, baso mistoetan ere agertzen dira. Penintsula mailan Pirinioetara mugatzen da, Nafarroaraino iritsiz.

ES *Abeto blanco* EN *Silver Fir*

★★ **BE**

Pinazi pinua

Pinus pinea

Kostaldeko zein bestelako eremu hareatsuetan hazten da. Gainontzeko eremuetan landatua izan da. Bere hazia, pinaziak, sukaldaritzan oso preziatuak dira.

ES *Pino piñonero* EN *Stone Pine*

★ **BE**

azikulek 25 cm luze neurtu dezakete

Itsas pinua

Pinus pinaster

Lur hareatsuetan eta arroiletan berez etortzen da. Egurgintzarako ere landatu izan da. Oso azikula luzeak ditu.

ES *Pino marítimo* EN *Maritime Pine*

★ **BE**


Intsinis pinua

Pinus radiata

Egun Euskal Herrian egurgintzan gehien erabiltzen den espeziea da, batez ere eremu atlantiarrean. Oso hazkuntza azkarra du. Bere hedadura eta kudeaketak kalte ekologiko handiak eragin ditu.

ES *Pino de Monterrey*
EN *Monterey Pine*

AE ★★★★★



unbela formako adaburua

enbor gorritzeta adaburu urdinxka

azikulak hironaka taldekatuta dituen bakarra

estrobilo tentea

pinaburuak ezkata kakodunekin

hostoak bi planoetan